

# BERRIGARA

84. zenbakia

JARDUN ELKARTEA, Bergara

1.992, azaroak 13

**MAYC:**  
LANGILEAK  
ENPLEGU  
ERREGULAZIOEN  
AURKA  
PROTESTAKA

**POL-POL:**  
HIMALAYARA  
JOANDAKO  
ESPEDIZIOKO  
KIDEEKIN  
BERRIKETAN

## KIROLAK

JOSE LUIS  
BEITIAK  
BERGARAKO  
FUTBOL  
TALDEA  
ZUZENDUKO  
DU




**BERGARARRAK NAGUSI GORLAKO  
MOTO IGOERAN**

THE



**Burberrys**  
OF LONDON

LOOK



**egizabal**

Marka onenen eksklusibak ditugu!!



CARTUJANO

# GURPIL GAINEKO ERAGINKORTASUNA

Guipuzcoanan, gure lehen helburua zerbitzu oso eta eraginkorra eskaintzea da.



Horretarako garraio sare logistiko arin eta dinamikoa daukagu enpresen eskuetan.



Antolakuntza osoa, bere 57 ordezkari-zenbaki bidez estatu mailako hedapena duena.



Egunez egun enpresa lanetan agintzen diren beharrei erantzuteko.



Gure eraginkortasuna gurpil gainean ibil dadin.

**EGAÑABERRI**  
E. M.

SAN JUAN AUZOA, Z/G  
I.F.K: B - 20-395612  
20570 BERGARA



**GUIPUZCOANA**  
Paketean garraio eta banaketa

# BERRIGARA

**Argitaratzailea:**  
 Jardun Elkarte  
 Errotalde Jauregia, 20.570  
 Bergara  
**Tfnoa eta Faxa:** 76 03 97  
**Babeslea:** Bergarako Udala

**Laguntzailea:**  
 Eusko Jaurilaritza

**Erredakzioa**

Eneko Azkarate, Eduardo Mendibil  
 eta Mikel Elkorobereziabar

**Maketazioa:**  
 Eneko Azkarate eta Eduardo  
 Mendibil

**Publizitatea eta harpidetzak:**  
 Alex Azkarate eta Eurne  
 Arenaza. ☎ 76 03 97

**Erredakzio-kontseilua:** Inaki  
 Eraña, Gorka Elorza eta Alex  
 Labaien

**Kolaboratzaileak:** Jose Angel  
 Mikeo, Estepan Plazaola, Miguel  
 Angel Elkorobereziabar, J. M.  
 Eltxepuru, J. Oregi, A. Urzelai,  
 Mariipi Laskurain, N. Alzelai,  
 Ainhoa Lete, Jon A. Bengoa, M.  
 Lizarralde, Monika Belastegi, M.  
 Elkorobereziabar, Aitziber  
 Aretxaga, Ainhoa Bikuña eta I.  
 Sorondo.

**Argazki laborategia:**  
 B. Cantero, M. Leturia, J.A.  
 Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo, J.  
 Garzia, D. Santos, P. Retolaza,  
 Kiñu eta Pol-Pol Mendizale  
 Taldea.

**Komikia eta marrazkiak:** Josu  
 Okina eta Antonio Arrillaga

**Inprimategia:**  
 Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa:** Txantxangorri Taldea


**Copyright:**  
 BERRIGARA

**Tirada:** 3.000 ale

**Lege gordailua:** SS 50/ 91

**ISSN:** 1130-6599

**BERRIGARA** ez du bere gain har-  
 tzen aldizkarian adierazitako esa-  
 nen eta eritzien erantzunkizunik.



**Aldizkari honek**  
 Eusko Jaurilaritzako Kultura eta  
 Turismo sailaren laguntza jaso du

## PROTAGONISTAK

### JOSE LUIS BEITIA

Jose Luis Beitia bergarra izango da, B.K.E.ko preferenteko futbol taldearen entrenatzaile berria, direktibak Jesus Izagirre orainarteko entrena-tzailea bota ondoren

Beitia, orainarte ju-benilak entrenatzeaz gain, B.K.E.ren zuzen-darritza teknikoaz ar-duratu da. 36 urte ditu eta 1.971. etik ari da entrenatzen; urte hau-etan kategoria gehi-enetan entrenatu du eta 86-87 denboraldian preferente mailan aritu zen, baina hiru hilabe-te egin zituen bakarrik.

Momentu hauetan Beitia Bergara K.E.ko



oinarrizko futbolaren arduraduna zen, baina direktibaren erabaki honekin aurtengo denboraldian prefe-rente mailako talde-aren entrenatzailea izango da.

Ea aurrekoak baino zorte hobea duen.

### Futbol talde nagusiaren entrenatzaile berria

## ITURRI ONETIK

### Etxebizitza sozialen arrakasta

Toki-Ederreko etxebizitza sozialen inguruan asteazkenean egin zen bilera informatiboak toperaino bete zuen Novedades aretoa. Bestek beste, Javier Alejo Eusko Jaurilaritzako Dirubidezko Plangintza eta Jestioen zuzendaria, Victoriano Gallastegi alkatea edota Xabier Gallastegi Hirigintza Batzordeko arduradunak interesatuei nahi beste xehetasun argitu zien. Abenduaren 9an eskakizunak aurkezteko epea amaituko da.

## ESAN DUTE

"Gizartea euskalduntzeko ez da nahikoa administrazioa edota hezkuntza euskalduntzea. Beste eremu guztietara zabaldu beharra dago, euskarari benetako prestijio emango dioten eremutara".

**ANAJE NARBAIZA**  
 ELAYko langilea  
 EUSKAL TELEBISTA

"Idolorik? Carlos Sainzen antzerakoa izatera heltzea gustatuko litzaidake. Posible da baina hortarako laguntza haundia behar da".

**IBAN RODRIGUEZ**  
 Gidaria  
 EUSKADI IRRATIA

"Jarri ahal izango dizkiguten eragozpen, boikot eta traba guztiek ezin izango dute *Eginen* aurrerakada inoiz oztopatu".

**JOSE LUIS ELKORO**  
 Enpresaria  
 EGIN

## ZUBIAURRE AROZTEGIA

- Sarrerako eta barruko ateak •
  - Horma armairuak • Tarimak •
  - Egurrezko eta PVCzko leihoak •
  - Era guztietako arotz lanak •
- Zubiaurre, 2. 76 15 14 / 76 35 73

## ELKTRO

ARENAZA C.B.

Montaje elektrikoak,  
 automatismoak, e.a.

San Lorentzo 19,  
 Tfnoa: 76 03 17 - 76 03 43

Atsedeen zentrua

## LOKARTU

Koltxoi-Denda

Bideberri z/g. ☎ 76 05 01



**INSTINTO BASICO**

Ostirala: 22.30.

Larunbata: 17.00., 19.30. eta 22.30.

Igandea: 17.00., 19.30 eta 22.15.

Astelehena: 19.30 eta 22.15.



**MI CHICA**

Larunbata: 11.30.



**LA LINTERNA ROJA**

Osteguna: 19.30.

**Zinea**

▼▼ Pantailera heldu aurretik guztia idatzita eta esana zegoen baina filme honek oraindik hor darrai, takilletan marka guztiak hautsiz.

**Paul Verhoevenek** zuzendu eta **Sharon Stone** eta **Michael Douglasek** protagonizatzen duten *thiller* honek polemika sortu du hainbat kolektiboren artean.

▼▼ **Macaulay**

**Culkin** momentuko aktore arrakastatsuenetarikoa dugu, batez ere jende gaztearen artean. Umorea eta tristezia tartekatzen duen filme honetan maitemindu egingo zaigu. **Dan Akroyd** eta **Jamie Lee Curtis** aktore ezagunak.

▼▼ **Zhang Yimou**

(*Sorgo rojo, Ju Dou*) Txinako zinegilerik ospetsuena dugu eta egiten duen filme bakoitzak sariren bat lortzen du munduko zine jaialdi onenetan. *La linterna rojak*, esaterako, Venecian *Zilarrezko lehoia* eta Valladoliden fotografia onenaren saria jaso zuen.

**Erakusketak**

▼ **Juan Balentziagak** azken urteotan landutako margoak, eskulturak eta keramika lanak ikusgai izango ditugu Kultur Etxean azaroaren 23ra arte.

▼ **Juan Antonio Unzurrunzagaren** argazki erakusketa Eloorrioko Kultur Etxean. Azaroaren amaierara arte.

**Farmaziak**

▼ **Larunbata 14:**

Camacho.

▼ **Igandea 15:**

Camacho.

▼ **Astelehena 16:**

Puy/Ruiz (Arrasaten gauzez).

▼ **Asteartea 17:**

Gualar/Morales.

▼ **Asteazkena 18:**

Estella/Azkoaga.

▼ **Osteguna 19:**

Mozos/Español.

▼ **Ostirala 20:**

Camacho/Irizar.

**Ogia**

▼ **Igandea 15:** Bolintxo.

**ZUBIETA**

elektragintza

- ✓ Motorren bobinaketa
- ✓ Era guztielako instalakuntzak

Kruz Gallastegi, 2 behea  
Tfnoa: 76 23 48

**Euskalduna  
Taberna**

OSINTXU

**ONENA**

TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

## Ikuskizunak

▼ **Indiana Jones zorigaiztoko tenpluan** bideoa larunbatean, hilak 14, Kultur Etxean, 11etan. Angiozarko Saloian, 16.30etan.

▼ **Futbolin Txapelketa** larunbatean, hilak 14, 16.00etan Oilagorran.

▼ **Musika Eskolako** haize taldea Mizpirualde Egoitzan larunbatean, hilak 14, 19.45etan.

▼ **Xamatx** dantza taldea igandean, hilak 15, Mizpirualde Egoitzan bazkalostean.

## Aukeran

▼▼ Igandean, azaroak 15, **Georgiako Operako Orkestaren** kontzertua izango da arratsaldeko 5etan Santa Marinan, *Udazken Kulturalaren* programazioaren barne. 1.969. urteaz geroztik, ospe handiko opera asko eskeini ditu orkestra honek mundu osoan zehar. Zuzendaria, Irakli Tchaureli du.



## Kirolak

### ▼ Futbola:

• **Bergara-Burumendi** (lehen mailako gazteak). **Larunbatean** 15.30etan Ipintzan.

• **Bergara-Urki** (2. mailako infantilak). **Igandean** 10.00etan Ipintzan.

• **Bergara-Euskalduna** (pferente maila). **Igandean** 15.30etan Agorrosinen.

### ▼ Eskubaloia:

• **Bergara-Beasain** (kadete mutilak). **Larunbatean** 16.00etan Kiroldegian.

• **Bergara-Leizaran** (kadete neskak). **Larunbatean** 17.15etan.

• **Bergara-Urola** (senior muti-

lak), 18.45etan Kiroldegian.

### ▼ Saskibaloia:

• **Bergara-C.B.N.** (senior neskak), **larunbatean** 20.30etan Kiroldegian.

• **Miner Ardoak-Iraurgi** (kadete mutilak), igandean 10.30etan.

• **Bergara-Arrasate** (kadete neskak), igandean 10.30etan.

• **Pub Etxenagusia-Etxadi** (gazte neskak), 12.15etan.

### ▼ Futbito:

• **Futbito Txapelketa** astebukaeran Kiroldegian.

5

### PROFESIONALAK

• Telletxea eta Andueza V.a Ansotegi eta Oregiren aurka.

• Soroa III. eta Armendariz/ Goñi eta Errasti.

• Gabilondo eta Gueneuxea/ Kalonge eta Garaita.

Larunbatean, arratsaldeko 16.30etan Udal Pilotalekuan.



# Gaspar

Jatetxea, Txokolategia,  
Self Service-a

Barrenkale 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

## EZPELETA

etxea

Harizko eta kotoizko goimailako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

**Ehizarik ez**

Udaberrian jaiotako kume ederrak mundua ezagutzen ari dira, haizearen hozkirria eta euri osteko lur-usaina gozatzen. Atzo amarekin jolasean, gaur, non ezkutatu asmatu ezinda; zapaltzailak iritsi dira, MILAKA EHIZTARI mendian hara-nora, eskopetak hustu nahian. Begira-puntutik beren barrenean erreprimitu duten bizitza bera dakusate (osasuntsua, berezkoa, kalterik gabekoa...).

Zorionez, ugariagoak gara abereak bizirik, aske eta pakean ikustea maite dugunok, inoiz tirokatuko ez genituzkeenak; gero eta ugariagoak gainera.

Erakunde eta ehiztarien artean idatzitako Ehiza Legea motz gelditzen da, argi dago ez dela inoiz ere baliogarria.

A zer adar jotzaileak Euskal herriko faunaren egoera ezagututa, ehizak oreka ekologikoa mantentzen duela diotenak!

Aspaldiko ohitura eta lanbidea dela diote: "Gure arbasoak ehiztariak ziren". Bai, jan-bizi beharrez edo ezinbestean, baina jaso zein animaliak maitatu eta errespetatuz. gaur egun ez. Egun ulerrezina da ehizan egitea animalien egoera tamalgarria ikusita.

Hegazti eta arrainen birpoblaketak egiten dituztela esanaz babesten dira. Onartezina da, ordea, birpoblatu eta hiltzen jarraitzea. Erakundeak dira ikerketa sakon bat egin eta arazo honi

aurre egin beharko lioketenak.

EHIZA, gizaki askoren beste portera eta ohitura tamalgarri bat; posible ote da jende horri pentsarazi eta beste aukera bat hartzera bultzatzea?

Ekolojia aldarrikatzea ez da txori eta zuhaitzez arduratzeaz betetzen, planeta honetako osagai bat garela konturatu, eta ingurune eta inguruko izaki eta espezieak errespetoz zaintzean datza. Hortxe dago kokxa, pentsakera asko moldatu beharra dago.

Inguruko talde ekolojista eta mendizaleak gogor arituko gara halako sarraskiak egiteari uzten ez dioten bitartean.

**Amilotx, Mendia Bizirik, Eki eta Eguzki.**

**Ikasleen Eguna**

Jadanik 50 urte bete dira Txekoslovakia gertaera izugarriak izan zirela. 50 urte igaro dira naziek txekoslovakiar fakultate guztiak itxi eta milaka ikasle atxilotu zituztela, ondoren konzentrazio kanpoetara bidali zituztelarik.

50 urte dira egun hau Nazioarteko Eguna deklaratu zenetik, munduko ikasle guztiak heldutasun bat hartzeko balio izan dute. 50 urte, non ikasleok

gure eskubide juxtuak defendatzen ikasi dugu.

Ez da bide erreza izan askotan oztopaturik egon delako. Guzti honengatik ikasle Abertzaleak-ek data hau, Ikasleen Nazioarteko Eguna, jai giroan ospatu nahi du eta hala egin ere. Honela aktibitatez osaturiko aste bat antolatu dugu eta asteari amaiera emateko, ostirala 20an, txapelketa ezberdinen finalak, ikasleen arteko bazkari bat eta gauean rock jaialdi bat izango dituzue.

Bukatzeko, egun hau ikasle guztiena denez, Bergarako ikasleei deialdi bat egiten diegu gogoz eta indarrez parte har dezaten.

Gora munduko ikasleen nazioarteko eguna!

**Bergarako Ikasle Abertzaleak**

**Barkamenak HERRANI**

Joan den asteko GALDE DEBALDEko saria HERRAN elektrogintzak emandakoa zen eta, akats batengatik, ez genuen aipatu. Gure barkamenak eskatu nahi dizkiogu HERRANI lerro hauetatik.

**Tiira ba!**



**Josu Okino**

## Bergarako euskara ikastaroa

Oraindik zabalik dago UNEDen Bergarako euskara ikastarorako matrikula epea. Juan Martin Elexpuru idazle eta irakasleak zuzenduta, hemendik eta otsailaren 25era bitarteko asteazken eta ostegunetan, arratsaldeko 7etatik 9etara izango dira klaseak. Ikastaro honetan, besteak beste, hika ikasteko ahozko praktikak landuko dira eta Bergarako euskararen grabaturiko kasetak ere entzuteko aukera izango da. Ikastaroan parte hartzeko interesa duzuenok, UNEDeko Euskal Kultur Departamentura jo dezakezue izena emateko.

## MAYCeko langileak erregulazio espedienteen aurka protestaka

MAYCeko langileek protesta egin zuten asteazkenean, datorren urtean enpresak martxan jarri nahi dituen erregulazio espedienteen aurka. Enpresa Komitea osatzen duten CC.OO, LAB, ELA eta UGT sindikatuen esanetan, "483 langiletatik, eszedentea 160 lanpostutan finkatu da (73 langilek enpresa utzi dute egoera ezberdinetan), eta eszedente estrukturala 97 lanpostutan.

Gogoratu, urtearen hasieran Candy multinazional italiarrak MAYC enpresaren akzioen gehiengoa erosi zuela. Orain bere asmoa modernizazio prozesua burutzea da. Zentzu honetan, Enpresa Komiteak salatu egin zuen, "hasierako linea zuriko enpresen konbersiotik MAYCi zegozkion 2.000 milioi



pta. inbertitzea bakarrik eta 93rako bi erregulazio espediente planteatzea: lehena urte osorako 300 langileri zuzendua (4 bilabeteko 3 txandetan) eta bigarrena plantila osoari 20 egunez".

Sindikatuak enpresaren etorkizunerako planak jakin nahi dituzte, eta horren arabera eszedente posibleak negoziatu.

Enpresak aldiz, erregulazio espedienteak beharrezkotzat jotzen ditu egungo egoera ikusirik. Eszedenteko lanpostuak egunetik egunera ikusiko direla ere adierazi zuen.

Datorren asterako, eguneroko ordubeteko greba konbokatuta dute langileak eta ostiralean, hilak 20, manifestaldi bat burutuko dute eguerdian.

## Kontsumo masterra

Ostiralean hasiera eman zitzaion Bergarako UNEDek eta Eusko Jaurlaritzak antolatutako Kontsumo masterrari. Inauguraketa ekitaldian, besteak beste, Maria Jesus Aranburu Kultur diputatua, Martin Iturriria Eusko Jaurlaritzako Kontsumo Saileko zuzendaria, Koldo Pereira Euskara eta Hezkuntza zinegotzia, Fernando Etxeberrria masterraren zuzendaria eta Juan Madariaga Bergarako UNEDeko zuzendaria izan ziren. Guztiek, masterrak, kontsumo gizartea ezagutzeko eta kontsumitzaileen interesetarako duen garrantzia azpimarratu zuten.



**ORTZI**  
ERRETEGIA

ANGIOZAR ☎ 76 22 68

Paper pintatuak - Pinturak

**A. ZANGITU**

☎ 76 19 54 BERGARA  
☎ 79 91 82 ARRASATE



□ **Arrizuriaga**

Obra, Hirigintza eta Ingurugiro Batzordeak proposatuta eta XVI. mendeko dokumentazioa miatu ondoren, Gobernu Batzordeak orain arte Unzeta Ruiz de la Prada Parkea deitutakoari hemendik aurrera Arrizuriaga parkea deitzea erabaki zuen aho batez. Arrizuriaga izena gune hortako toponimikoa omen da Andoni Larrañaga Kultur zinegotziak egindako txosten eta ikerketen arabera.

□ **Argazkia**

Jose Luis Feo eta Natxo Millan Pol-POI Argazki Taldeko kideek Beasaingo Argazki Rallyko lehen eta hirugarren sariak eskuratu zituzten. Benito Cantero, berriz, bigarren sailkatu zen Gernikako I. Mendiko Argazki Lehiaketan.



**Kolaborazio hitzarmena**

Bergarako Udalak Seminarioko Zientzia Kolekzioan diren aparailu zientifiko eta teknikoak katalogatu, ordenatu eta inbentariatzeko kolaborazio hitzarmena sinatuko du Eusko Ikaskuntzarekin datorren asteazkenean, hilak 18, goizeko 11etan Kultur Etxean.

Hitzarmen horren arabera, Eusko Ikaskuntzak espezialista talde bat osatuko du aipatutako sekzioan diren 200 bat piezen garbiketa eta birkonpoketa egiteko. Jarraian, inbentarioa egin eta pieza bakoitza izendatuko da eta, azkenik,

pieza bakoitzaren azterketa eta sailkapena.

Lan taldea Kimikan lizentziatutako Rosa Errazkin eta EHUKo Kimikako irakasle, Kanadako Dalhousie Unibertsitateko doktore eta Eusko Ikaskuntzako kide den Jesus Ugalde bergararrak osatuko dute.

Kolaborazio hitzarmenak 16 hilabeteko iraupena izango du eta Bergarako Udalarari 3.250.000 pta. kostako dio.


Sinatze ekitaldian Gregorio Monreal Eusko Ikaskuntzako presidentea eta Victoriano Gallastegi alkatea izango dira.

□ **Opor programa**

Arazo Sozialetarako Ministeritzak 65 urtetik gorakoei eta pentsionistei zuzendutako opor programa martxan jarri du. Bidaiak, urriatik martxora, Balear eta Kanariar irletara, Katalunia, Valencia, Andaluzia edota Murziara izango dira. Informazio gehiago Udaletxe zein Jubilatuetako Gizarte Laguntzailearen bulegoan jaso daiteke.

□ **E.A-E.U.E**

Bergarako Eusko Alkartasunak azaroren 22an Anoetako Belodromoan Eusko Alkartasunak eta Euskal Eskerrak egingo duten koalizio ekitaldira joateko autobusak antolatuta ditu: bazkaria, jaialdia eta Xabier Gurrutxaga eta Karlos Garaikoe-txearen hitzaldiak izango dira. Izena emateko Eusko Alkartasunaren lokalera edota 76 26 81 telefonora jo dezakezue.



PAPERDENDA

**Marcó**

Bidekurutzeta, 44  
Tel. 943 / 76 05 54  
Fax. 943 / 76 05 54  
20570 BERGARA



**LASA  
JATETXEA**

Bidekurutzeta 36, ☎ 76 10 55 / 76 20 29

% 15eko beherapenak

**farnish**  
**BITXITEGIA**

San Pedro 12, Tfnoa: 76 03 57

**GALLASTEGUI**  
**Jostundegia**

Mahozko lanerako jantziak

San Pedro 17, Tfnoa: 76 10 85





## Kultur Ondarea

Eusko Jaurlaritzak, Kultur Ondarea hobeto ezagutzeko, ondare artistikoa bera aztertu eta, nagusiki, Euskal Herriko Ondare Artistikoaren inbentarioa egiteko Euskal Herriko Ondarearen Zentrua sortu du.

Horren barruan, Ondasun Artistiko Kalifikatuen zerrenda ere burutuko da, bertan aparteko zainketa merezi duten ondasunak sartuko liratekeelarik.

Bergarari dagokionez, higiezinazko ondasun artistikotzat jotako 192 eraikin daude behin behineko inbentarioan eta

Artzamendi Etxea, Orbe Haundia baserria eta San Migel ermita zerrenda definitiboan sartzeko espedienteari ere ekin dio Jaurlaritzako Kultura Sailak.

Bestalde, besteak beste, San Pedro eta Santa Marina elizak, Jauregi Etxea, Irizar Etxea edota Ozaeta Etxea ondasun kalifikatuen zerrendan dira jadanik. Xabier Aranburu udal museologoaren esanetan, "kultur ondareari dagokionez, Bergara Gipuzkoako herri aberatsenetakoa dugu Oñati, Hondarribi eta Donostiarekin batera".

# Txinpartak

✓ **BOTA** talde antimilitaristak Yugoslavia ohiak jasaten ari duen egoerari buruzko hitzaldia iragarri du astelehenerako, hilak 16, 8etan Kultur Etxean. Ostegunean insumisioa izango da aztergai ordu berean Gaztetxean.

✓ **Jubilatueta**n abenduaren 1ean Lizarrako San Andres feriara joateko eskursioa antolatu da. Izena emateko epea azaroaren 20an amaitzen da.

✓ **Joseba Egibarrek** "Egungo egoera politikoa" izenburuko hitzaldia emango du ostiralean, hilak 13, arratsaldeko 8etan Bergarako Batzokian.

✓ **III. Egin Mus Txapelketako** kanporaketak (8 erregetara) jokatu dira larunbatean, hilak 14, arratsaldeko 4retan Belengua tabernan.

✓ **La Misión** pelikularen soinua eskeiniko dute Bergarako Orfeoak eta Orkestra Sinfonikoak larunbatean, hilak 14, arratsaldeko 8etan Balmasedako Udal Ateneoan.

✓ **Pol-Pol M.T.k** dei egiten die Astun-Candanchuko denboraldirako bonoa atera nahi duten guztiei bulegotik pasatzeko.

## ETXAGI

### Jatetxea

Afariak - Bataioak  
Jaunartzeak

Eguneko menua  
Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12



## ETXEBERRIA

### ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65  
BERGARA

## KIZKUR



### Neapaindegia Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

## LONBIDE

### OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 5

76 10 57

BERGARA

**S**ei urtera arte itxaroten zuten umeek, eskolari hasera eman aurrez eta, %ko 90k, hamar urte betetzear, bukatzen zitzuten euren eskola lanak. Komunio orokorra burututakoan, eguneroko ogia nun izan zitekeen, kezkarik ardura-duentsuena. Beste %ko 10ak, goimailako ikasketetan murgiltzen zituen beren seme-alabak eta gainontzeko bakarrak, erlijioso/sa, konbentuetara.

Gazte multzorik haundienarentzat, honako eginkizunak ziren gehien bat: aprendiz (zurginmutil), pintxe (sukalmorroi), laguntzaile, ordezko edo morroin. Ikasle zintzoak eta gazte perkataxak be, aurkezten ziren noiz edo behin, lanpostu egokietarako gertatuak: bulego pribatueterako, hiriburuetan administrazio lanei aurre emateko etab... Ofizio bereziak be, ikasten zituzten banaka batzuek.

Ikus litezke nonahi, eskulan egokiak, monumento eta eskultura aldetik, batipat. Baserrietako kriadutza genuen beste ogibide zabal bat. Azkenik, eskuarte ona zeukaten aita-amek, umeentzako ogibideak erabakita zituzten. Horretarako, bazituzten Bergaran bertan, ikastetxe bikainak Dominikoen aldetik, naiz "mojabarrietako" andereñoen eskutik.

Lantokietako zereginekin jarraituz, kontrol gabe eskeintzen zirela esan genezake. Lehen postu haiek, ezin zitezkeen

*Hogeigarren mendean  
basi eta aurreruntz, II.  
Errepublikarainoko  
gazteen etorkizuna  
nolakoa zen, aurkeztu  
nabi nuke bemen, labur-  
labur*

*Bildu dudan  
sortatxotik...*

## GAZTEEN ETORKIZUNA ETA BASERRIETAKO KRIADUTZA



Antonio Urzelai

onartu, etorkizunerako, orduko bizikerak eskatzen zuena betetzeko baizik. Denbora haietako eragozpenik astunena, edozein adinalditako langileentzat, euren eskubideak babesteko legerik ez izatea zen. Soldatak, esate baterako, ugazaben iriztiak markatzen zituzten eta lantokitik botatzea, noiz nahi, aski zuten, inungo kalteordainik gabe. Era horretan, zaila zen etorkizunerako lanpostu bat aukeratzeari.

Baserrietako kontuak, erabat ezberdinak ziren. Baserrietxe gehienetan, morroinen laguntza beharrezkoa zen, batez ere, lursail haundiak zituztenentzat, familiatik zutenentzat edo jaiotzaz, ondoriorik gabeko familientzat. Era bakoitzeko ordezkaritzat, eska zitezkeen: bat, bi edo hiru morroin.

Mende honen lehen bi/hirugarren hamarkadan, Bergarak 380 baserri-bizitza zituen, Angiozar eta Ubera gabe. Ezin ukatu, gazteentzako ogibide zabala zela. Kriadu lekuak, baserrietako etxe jabeen familietan sortzen ziren gehienbat. Izan ere, erreterero etxeetan, nahiko lan zeukaten beren seme-alabak mantentzen, kanpokorik hartu gabe, ugazabari ordaintzen zioten gari kopurua kendu eta gero.

Baserrietako kriadutza, gaitudala, hurrengo batean jarraituko dut...



DEBA  
**GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Arrasate / Bergara / Elgoibar

T. Aranzadi, 2 behe. ☎ 76 21 80  
76 06 37

LARRAÑAGA  
eta ZUBIA

**Banatzaileak**

Errioxako ardoak, olioak,  
esnea, lejiak...

Martokua 32, tfnoa: 764594

**LARREA**

TABERNA

Kale Barren 17  
ANTZUOLA

# LASAI-TOKI

## Ibaiondoko elkarte

Lasai-Toki elkarte la-  
gun talde baten inizatiba  
batetik sortutako elkarte  
dugu. 1976.eko uztaile-  
ren 24ean ireki zituen le-  
henengo aldiz bere atea.  
Orditik hona jende ugari  
batu da elkartera.

Gaur egun 96 bazkide  
kuotadun eta 24 jubilatu  
daude Lasai-Tokin. Baina  
barne arategiak dioene-  
z, 104 kuotadun bazki-  
de baino gehiago ezin  
dira izan. Bazkideen ba-  
tazbesteko adina 46-49  
urte ingurukoa da. Lasai-  
Tokin jubilatzekeo adina  
65 urtetakoa da. Jubila-  
tzean, sarterakoan ordai-  
ndutakoaren %100a  
itzultzen zaizu. 55 urte-  
rekin ere jublatu zai-  
tezke, baina kasu hon-  
etan, zure ordezkari baz-  
kide berri bat aurkitu  
behar duzu.

### Diruak

Diru kontutan sartuta,  
elkarte honetan joan zen  
urtean, kuota eta guzti,

batu zen diru kopurua  
6.754.000 pztakoa izan  
zen, gastuak zerbait txi-  
kiagoak izan zirelarik,  
6.540.000 pztakoa hain  
zuzen.

Lasai-Toki elkarteak  
urtero gertatzen du he-  
rriko jubilatuentzat luntx  
bat. Horretaz gain, herri  
mailan gertatzen diren  
ospakizunetan laguntze-  
ko prest egoten dira. Ho-  
nela, haurren euskal jai-  
an, koralak eta orfeoak  
ere bazkaldu izan dute  
elkarte honetan, eta San  
Martinetako tanborradan  
ere parte hartzen dute,  
besteak beste.

Elkartearen eguna uz-  
tailaren 24a da, baina beti  
larunbatean ospatzen



dute.

### Proiektuak

Lehenik eta behin,  
udan izandako ur haun-  
diek eginiko kalteak  
konpondu nahian dabil-  
tza Lasai-Tokikoak. Jada-  
nik badaramatzate lau ur  
haundi: 77. urtekoa, 83,92  
eta 77arenaurrean txiki

bat.

Daukaten beste pro-  
iektu bat, airea garbituko  
duen aparailu bat ipin-  
tzea da.

Sukaldari onak ere  
ugari dira elkarte hon-  
etan. Hala nola, Etxaniz,  
Patxi, Juan Sanchez, Lete  
eta beste hainbat. Behin  
Bergarako txapelduna  
izan zen Avencio Costelo  
ere Lasai-Tokiko bazkide  
dugu. Lehiaketa hartan  
bixigu eta guzti omen ze-  
goen prestatuta, eta  
Avenciok "patatas revol-  
conas" errezetarekin utzi  
zituen guztiak atzean.

*Ainboa Lete*

## FITXA TEKNIKO

**SORTU:** 1.976ko uztailaren 24an.

**BAZKIDEAK:** 96.

**HELBIDEA:** Matxiategi, 32.

**PRESIDENTEA:** Aniceto Familiar.

**ELKARTEAREN EGUNA:** uztailaren 24a.

**URTEKO KUOTA:** 14.400 pzta.

ARREGUI, E.M.



AROSZTEGIA

- METALEZKO AROZLANAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
  - ATEAK, etab.
- TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN
- EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73  
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

**PUXKIN**  
OINETAKOAK



D. Irala BERGARA. ☎ 76 21 17

Bidekurutzeta 6, behea  
Tfnoa: 76 57 68  
BERGARA


**SURPE**  
Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97  
ANTZUOLA

**aroa**  
boutique

# Daulaghirik ezetz esan zien Pol-Pol Mendizale Taldeko espediziokideei

Urte hau euskal mendizaleentzat magikoa izan den arren, ez da berdin gertatu Bergarako mendizaleentzat. Himalayan dagoen Daulaghiri (8.172 m.) igotzeko asmoz irten ziren Damaso Gallastegi, Jon Lazkano eta Luis Goenagak beren helburua bete barik itzuli beharra izan dute.



Abuztuan heldu ziren bergararrak Katmandu aldera. Han Nepaleko agintariekin arazo batzuek eduki eta gero irailak 8an, papel guztiak konponduta irten ziren lau mendizaleak eta 52 porteadorez osatutako karabana, kanpo basea 4200 metro-tan ipini zutelarik. Kanpo basea San Martin egunean gelditu zen finkaturik, guztia antolatzen egun batzuek eman ondoren eta zortzi egunetako bidai gogorren ondorioak sendatu ondoren, Daulaghiri edo Ekaitzen mendia igotzeko lehen pausua emana zegoen.

Damaso eta Jonek esan ziguten bezala, *"baserako oztopo guztiak gainditu ondoren gure planak hauek ziren:*

*ren, alpino eran, Daulaghiri tontorreraino zuzenean igo".*

Baina aurretik pentsatutako planak gauza bat

katua dago eta beste mendietatik nahiko urrutik gelditzen da, horregatik normala izaten da eguraldi txarragoa egitea eta zoritxarrez hori gertatu zitzaizen mendizale bergararrei *"urriak 9 an Himalayako zerua -lentejaitxurako lainoz hasi zen betetzen eta Sidarrak, porteadoreen buruak, esan zigun laino horiek eguraldi txarra iragaritzen zutela eta bi egunetan mendia elurrez estalirik gelditu zen".*

Eguraldi txarrak Daulaghirira igotzeko asmoa eta itxaropen guztiak zapuztu zituen arren, Da-

**"Txalotzekoa da nafarrek, atxabaltarrek eta Amaia Arantzabalek aurten egin dutena, Himalaya oso selektiboa da eta"**

*4.800 metrotan bigarren kanpamendua antolatuta eta 5.200 metrotan hirugarrena eta 5.800 metrotan azkena jarri ondo-*

dira eta gero beste gauza bat mendiak dituen zailtasunak. Daulaghiri gainera Himalaya mendikateko mendebaldean ko-



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

## UDAZKEN KULTURALA

Azaroak 15, igandea

Arratsaldeko 5etan, Sta. Marinako Parrokian


**GEORGIAKO OPERAKO ORKESTRAREN  
kontzertua**

maso eta Jonek argi utzi zuten elkarrizketan zehar ezin zitzaiola zorte txarrari erru guztia bota behar, beraien ustez "zortzi mila metrotako mendi batean normala da eguraldi txarra egitea, kanpo basean gutxienez 15 espedizio ezberdin geunden eta guztiok gure helburu nagusia, Daulaghiri igotzea, bete barik bueltatu behar izan dugu".

**Zortea bilatu egin behar da**

Aurten Daulaghiriko tontorrak ez du izan mendizaleen bisitarik eta bere maldetan mendizale Errumaniar batzuk bizitza laga dute. Honek argi uzten digu

Zortzi mila metrotako mendi bat igotzearen zailtasuna, Damasok dioten moduan "fisikoki topera egon arren holako mendi bat igotzeko burua oso garbi eta adi eduki behar da, mendi gosea eraman behar da de-



Kike de Pablosek Izenik gabeko dorreko gailurra lortu zuen.


rrigorrez". Daulaghiriko esperientzia bientzat aberasgarria izan den arren, Jonek eta Damasok asmo ezberdinak dituzte etorkizunari begira,

Jonek menditik bizi nahi duen bitartean, Damasok mendia "hobby" moduan hartzen du eta orain egindako espedizioak bere asmoak eta gogoak hein handi batean asetu ditu.

**Osasun kontuei buruz**

Zortzi mila metrotako mendi bat igotzeak esfortzu fisiko handia eskatzen du eta mendizale askok esfortzu hau bere osasunarekin ordaindu behar izaten du. Baina ez da hau Damaso eta Jonen kasua kilo gutxiagorekin etorri diren arren biak sasoi onean ikusi genituen eta.

Esperientzia honek merezi izan duen ala ez galdetu diegunean biak bat datoz: "Halako esperientzia batek beti aberasten gaitu, nahiz eta gure helburua lortu ez, beti eramango dugu Daulaghiri gure buruan".



**"6.600 metrotara geundenean gauzak zailtzen hasi ziren, edurra egiten hasi eta dena pikutara joan zen".**

**"Urriak 12an Daulaghiriko tontorrean egotea espero genuen, baina «lentejak» agertu eta atzera egin genuen".**

**"1.992 urte magiko honetan inork ez du igo Daulaghiri».**

**"Beleak ikaratzeko modukoak ziren, gure petateak mokoarekin zulatu eta han genituen fruitu eta txokolateak jan zizkiguten".**

**BERGARA**

**Karrozeria**

Txapa - Pintura

Tfnoa: 76 12 31

**Aldoka**

**Maldoka**

**TABERNA**

Kruz Gallastegi, BERGARA

**Jabier LAZPIUR**

HARATEGIA

- ✓ Bertako okelak
- ✓ Naturalak, kontserbanterik gabekoak
- ✓ Etxean egindako produktuak

Komenio kalea, 2 BERGARA

# Foto Sistema

## ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, ☎ 76 00 50

## Zaborrak banatzen edo sailkatzen al dituzu?



**Mikel Urzelai**  
22 urte, ikaslea

Ez, dena boltsa berean sartzan dugu. Bolun ez dugu kontenedoretara eramateko aukerarik.




**Mariasun Plazaola**  
58 urte, administratiboa

Kristalak kontenedoretara botatzeko ohitura dugu eta orain ba, papera eramaten hasi behar...



**Maribel Arana**  
36 urte, etxekoandrea

Bidrioak eta paperak kontenedoretara botatzen ditut eta orain oso ondo etorri zait pilendako jarri duten kutxa.



**Angel Iriondo**  
58 urte, jubilatua

Bai, baina Poligonoan paper kontenedoreak faltan botatzen ditugu.

**ETXE-  
-AUNDI**

*Negozio bazkariak  
Ezkontzak  
Banketeak*

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56  
OÑATI

**TOKI-EDER  
Taberna**

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84

IZOKIAK

**IZARRHOTZ**

IZOKIAK

Barrenkale 10, Tfnoa: 76 18 22

Jatetxea

# Jubilatuen Taberna

**MENUA** 750 pezeta

**AFARIAK**  
Kuadrilenzako aproposak  
Prezio onean

**KAZUELATXOAK**

☎ 76 62 71

ANTZUOLA



## Oinarrizko eskubideak

Orain dela zenbait egun nere eskuetara "Euskal Autonomi Elkarteko emakumeen oinarrizko eskubideen gidaliburua" izenburutzat duen liburuxka iritsi da.

Badakigu normalki mota honetako liburuak oso astunak izaten direla, oraingo hau berriz neurri handi batean praktikoa eta ulerterreza dugu. Bestalde, galdera-erantzunez osatua eta makina bat alor jorratzen ahalegintzen dela aipatzea beharrezkotzat jotzen dut.

Edukiari loturik bi alderdi nagusitzen dira. Lehenengoa, emakumeari berez dagokion eskubide multzoa. Konkre- tuki, tratu txarrak, sexu bortxaketa, emakume irudia, en- plegu mundura hurbiltzeko aukerak... aipatuko nituzke.

Liburuxka honek jasotzen duen bigarren alderdia oso zabala dugu. Bertan gai orokorrak dute lekua. Hona he- men, lan munduari buruzko zenbait aipamen, hezkuntza, herentzia kontuak, ezkontze-apartatze arazoak eta abar.

Gai hauek ez dira sakonki lantzen. Normala, bestalde, gidaliburua izanik. Baina maila egoki eta apropos bat lortzen du.

Ez da beste mundukoa baina baliagarria.

**Amaia Zabaleta**



## Zaharren jaia

Mizpirualdekook Berrigara aldizkarira gatozen lehen aldia da, eta azkena ez izatea espero dugu.

Egun, 113 gaude Egoitzan, kopuru errespetagarria, kontutan izateko modukoa. Lehen hitzak Bergara, Antzuola eta Elgeta herriei esker ona adierazteko, urtean zehar egiten dizkiguten bisitengatik.


Poza eta laguntasuna ekartzen dizkigute, batipat, etxetik irten ezinda daudenei. Dena den, eskutitz honen arrazoi nagusia azaroaren 9-15 astean zehar poz handiz ospatzen ari garen Zaharren Astearen berri ematea izan dugu. Aste honetan zehar hainbat ospakizun ditugu, eta honen bidez eskerrak eman nahi dizkiegu borondate one- nez lagundu diguten bergarar dendariei, Musika Eskolari, Umore Ona abesbatzari eta Xamatx taldeari.

Azken egunean, igandean (hilak 15), Meza Santuaren ondoren bazkari eder bat egingo dugu eta ostean txapel- ketako sarien banaketa; zahar askorentzat bizitzako lehen kopa, seguruenez. Merezki ere merezi dute eta.

Mizpirualdeko atea zabalik daukazue eta igandeko dantzaldira gonbidatuta zaudete. Oso eskergarria da, izan ere, edadetuei maitasun eta ilusio pixkat eramatea.

Gure eskerrik beroenak guztioi.

**Miguel Azkarate**



**Merzeria - Lenzeria**

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69

Taberna Kafetegia  
**EHIZTARIAK**  
**LOS CAZADORES**  
Kafea da gure berezitasuna  
Zubieta 26, BERGARA

**Berogailu, gas eta  
iturgintza azterlanak**

**Bainu diseinaketa**

**ZABETX**  
**INSTALAZIOAK**

Mahasterreka 14, Tfnoa: 76 54 14. BERGARA

## Beheko Taberna

*Menestra eta konejoa  
dira gure berezitasunak.*

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

## HAGIN KLINIKA

*Idoia Iriarte Irueta*

Artekale 1, 1. C. Tfnoa: 76 01 65

## ARDATZA

*Brikolaketa*

**ATEAK  
eta  
HORMA  
ARMAIRUAK**

Mahasterreka 4  
☎ 76 18 93



**LIZAR**

**Altzariak**

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53


## Mujika Jantzidenda

Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91




### ☐ Zaharren eserlekua

Udaletxeko obrak direla eta, zaharrek hain gustokoa zuten bankua bestekaldera, Seminarioko arkupetera eraman dute. Bertan egoten dira orain herriko zaharrak, jarri eta lagunartean berriketa batean, Udaletxeko obrak gertu gertutik jarraituz. Espero dugu mutikoen kalterako neurri bat ez izatea, gu behintzat hor biltzen bait ginen kaniketan jolasteko...



### ☐ Jose Antonio Pagola hizlari


Asteartean Jose Antonio Pagola Elizbarrutiko Bikario Orokorra Mariaren Lagundian izan genuen, Gipuzkoako Apezpikutzak egindako kinkenioko programaren aurkezpena egiten. Jende ugari bildu zen bertan, tartean herri eta auzoetako elizetako ordezkariak, Apezpikutzak datozen 5 urtetarako markatutako erizpideak lehen eskutik jakitzeko asmoz. Datorren larunbatean, hilak 21, idatzizko programa kaleratuko da Loiolan.



GAZTEEN MODA!

Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24





□ **Bergarako bideoa**

Azken egunotan Urrietako Iturbideo produktorak Bergarako bideo bat grabatu du herriko kale eta leku ezberdinetan. Ez pentsa ez ETBn ikusteko aukera izango duzuenik, ez... Udalaren aginduz, jendeak arau subsidiarioak modu erreza batean ulertzeko grabatu da eta, horrela, datozen urteotan herriak jasango dituen aldaketa arkitektonikoak muntaia fotografiko eta ordenadorez landutako imajinen bitartez azalduko dira 15-20 min.ko bideo batean. Berrigaran ere izan ziren Iturbideoko lagunak eta lanean erretiratatzeko aukera aprobetxatu genuen.




□ **Egineko medikuak**

Astean zehar *Egin* berria heldu zaigu Euskal Herri osoko kioskoetara, azken astetan ikusmin handia sortarazi duen publizitate kanpainaren ondoren. Ume jaio berriaren imajina hainbat tokitan azaldu zaigu behin eta berriz eta, nola ez, honelako kasuetan medikuak ezinbestekoak dira. **Joseba Prat** bergararra Arrasaten izan genuen, heltzeko zen *Egin* berriari ahal zuen laguntza emateko prest. Dagoeneko jaiotza arrakastatsuen berri izango zenuen. Zorionak!!


**Zertan dihardute ba?**

MARCELINO GARCIA



Bergaran 2 urte lanean daramatzan iurretar hau *Banco Central Hispanoko* zuzendari berria dugu, banketxe hauen elkartze prozesuaren ondorioz. Aurrez 23 urte eman zituen Durangoko Banco Centralean.

JON ANDUEZA



Berrigaran erredaktore lanetan ibili zen 26 urteko arrasatear honek Ondarroako Augustin Zubikarai Literatur Lehiaketako lehen saria lortu du "*Delanyko Parkean azkenengo izarra izkutatu eta gero*" lanarekin.

**BOLINTXO**

*Kirala esiteko behar den guztia*

Ibargaral 10,  
☎ 76 38 32

**LAZKANO**

**Oinetakoak**

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03  
BERGARA

**Zatoia**

Boutique

BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

## Umore giroan

### Kintzena kontuak

Ba zan gizon bat biarrerako zaletasun larregirik ez zeukana. Arek esaten zeban:

- Erretirua 40 urtekin artu biarko litzakek. Eta 65 urtekin barriz biarran asi.

Kintzenari buruz be bazeukan bere "teorixia":

- Kintzenia egunero kobrau biarko litzakek. Egunero eta goizetik.

Eztakigu au berau izan zan edo beste bat. Itxura danez, kintzenari zati aundi bat kentzen zetsan bere gastuentzat. Etxeko premiñak aundixak izanik, beiñ batian bere andria jua zan fabrikara eta, gizonen orde, -eztakigu zer aitzekikin- kobrau zeban kintzenia. Gizona kobratzera jua zanian dinotse:

- Ire kintzenia andriak kobrau jok.

- Ah, ondo daok.

Urrengo goizean, jo dau fabrikako "sireniak". Gure gizona, baifia, geldi oian.

Juan jako andria:

- Gizon, ez zoiaz biarrerera ala?

Eta arek erantzun:

- Kintzenia kobrau dabena jua deilla!

\* \* \*

### Angulak edo fideo sopia?

Eibartar kuadrilla batekuak -8 lagun- batu ziran kilo laurden angula jateko asmotan. Asi da euritako bat plasta-plasta, arraunian lez, platertera angula pillia botatzen. Orduan, beste batek, esatetsa:

- I, txotxo, eztok gero pentsauko fideo sopia denik..

Pedro Zelaia

## Antzinako kontuak

### Hiriguneko osagarriak: errebalak

Erdi Aroko hiri batean, errebalak hiriguneko zati izanik, hiri egitura jakin bati jarraituz, gunetik kanpo kokatzen diren eraikuntzak dira.

Hiriaren luzapen hauek, gehien bat sarrera edo urteetarako bide ondoetan kokatzen direnak, hiriaren garapenak hedakuntza bultzatzen duenean, XVI. mendean, handitzen hasten dira.

Errebalak, beraz, hiria eta herria nahastu barik elkartzten diren gunea da. Gune honetan merkatal trukeak ematen dira (merkatal egoitzak hemen izaten dira) eta batzutan merkatua ere egoten da.

Gune honetan eraikitzen dira, halaber, hiri barnean lekurik ez duten egoitzak, hala nola, monastegiak, abatetxeak eta dorretxeak.

Bergarako dokumentuetan argi eta garbi agertzen dira errebal bi: Bidekurutzeta eta Mahasterreka (Oxirondo). Bien mugak 1.497. ean aipatzen dira era honetara: "E los límites de dichos arrabales están hacia

Vidacuruceta hasta la casa de cal y canto que hizo y edificó Martín Pérez de Zavalotegui, que Dios haya, que son cabezas casas de la dicha Vida curuceta e por la otra parte hacia Oxirondo, el arroyo que baja de agua entre las heredades del ospital e Martín garcia Eguino".

Oxirondoko lurretan Mahasterreka eta Zubieta auzoak sartu behar ditugu. Beraz, hiriko errebal biak Gasteizetik kostaldera doan errepidearen sarreran eta urtakeran dira.

Gorosabelen ustez, 1.491. ean "por escritura otorgada a 21 de Noviembre" erabaki zen "[que] la colocación y Anteglesia de Santa Marina de Oxirondo y los vecinos de Zubieta y Moiu debían formar un solo cuerpo" baina 1.649. ean, eta Oxirondok banatzeko egindako eskakizunaren erantzunean, Oxirondo eta Moiu banandurik aipatzen dira "sin distinguir la villa y Oxirondo y casas de Moiu".

A. Basterretxea

## KATALDE Jatetxea

### ASTEBUKAERETAKO MENUA

- Barazki pudina
- Legatz pudina
- Entsalada mistoa
- Askotariko fritoak
  - Arrain zopa
  - Eskalope berezia
  - Txipiroiak
  - Xerra plantxan
- Txuleta pipar hautsaz
  - Tripakiak
  - Postrea

1.300 pzta

Katalde Pol.Ind. ARRASATE

## ARREGI

### Eraikuntza materialeak

Biltegia Tellerian, Tfnoa: 76 27 93  
Labegaraita Auzoa

## IRUDI

### Erlojudenda Bitxitegia

San Pedro 11  
☎ 76 51 65

*SURF*  
Kirol moda

AISSOR

Quick Silver, Rip Curl, Town Country, LIBERTO, O'Neill, Tachee.

Bidekurutzeta 7

☎ 76 04 BERGARA

# BONOFOTOA

EN ESTA ERMITA DIJO  
SU PRIMERA MISA  
CANTADA EN PÚBLICO  
S<sup>N</sup> FRANCISCO DE BORJA  
EL 15 DE NOVIEMBRE DE 1551

M. A. Elkoroberezibar



## Luisa Gisasola

Luisa Gisasolak jaso du aste honetan BONOFOTOkoko saria. Orain bi asteko argazkian agertzen zen iturria **ANTXITXURRI** zen eta **10.000 pzta.** eman dizkiogu erantzuna asmatzeagatik.

ZORIONAK Luisari eta ea besteek suerte gehiago duzuen hurrengoan!!

**Bergarako zein ermitatan irakur dezakegu hau?**

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Aste honetako  
saria : 10.000 pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen:

**BERRIGARA**  
**Errotalde Jauregia Bergara**

# GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA

CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, ZUBIZARRETA, ZULUETA,  
ESTEFANO, LABORRA eta RUIZ DK.ak

- Azterketa ginekologiko osoak
- Minbiziaren aurretiko diagnostikoa
- Hauraldiaren kontrola
- Txekeoak
- Bularreko gaitzen unitatea
- Mamografiak
- Antzutasuna
- Antisorkuntza
- Menopausiaren tratamendua
- Dietak
- Sudurra, eztarria, belarria
- Analisi klinikoak

**GUZTI HAU  
ARRASATEN  
BERTAN,  
URRUTIRAGO  
JOAN GABE!!**




Zerkaosketa, 17 etxabea.  
ARRASATE. Tfnoa: 79 20 18

# LILURA

## Edertze institutua

Edertasuna osasuna bezalakoxea da.  
Bakoitzarena banan-banan zaindu  
beharra dago.  
Utzi ezazu benetako espezialisten  
eskuetan.



Bidekurutzeta 7,

Tfnoa: 76 31 71

BERGARA

# Bideluze garaile Gorlako Igoeran

Pasa den igandean jokatatu zen V. Gorla Moto Igoeran, Angel Bideluze izan zen probaren garailea, Alex Elizburu 42 ehunenekotara bigarren gelditu zen eta, Ramon Ambroy laugarren postuan sailkatu ondoren, Euskadiko txapelketa irabazteko aukerak mantentzen ditu.

Baina karrera bukatu ondoren arazo batzu gertatu ziren, Alex Elizburuk erreklamazio bat egin nahi izan zuen karrerako epailearen aurrean, bere ustez Angel Bideluze segundu erdi lehenago irten zelako. Alexek esan zigun moduan, "lasterketa bukatu bezain laster epailearengana jo genuen eta honek esan zigun erreklamazioa egiteko Donostiara idatziz eraman behar genuela eta geroxeago egongo gi-

nela ez bait zegoen arazorik erreklamazioa aurkezteko, baina bi ordu pasa ondoren epailearengana jo genuenean honek onartu egin zigun Angel lehenago irten zela, baina ordurako berandu zela erreklamazioa aurkezteko eta gauzak horrela, ezin izan genuen erreklamazioa aurkeztu ere egin".

## Epailearen bertsioa

Lasterketako epailearekin ere hitz egin genuen bere eritzia jakiteko eta Jabi Romerok, epaileak, zera esan zigun "egia da Elizburuk erreklamatzeko gogoia adierazi zuela, eta gurekin egon ondoren erreklamazioa jar zezakeela esan genion, baina epez kanpo aurkeztu zuen, epea sariak bukatu



Angel eta Patri Bideluzek proba bikaina burutu zuten.

eta ordu erdira bukatzen da eta".

Elizbururi honen berri eman genionean berak erreglamenduaren alde hau ez zuela ezagutzen adierazi zigun eta hri dela eta oso haserre aurkitu genuen. Epaileak ere onartu zuen "Bideluze aurreratu egin zela, baina sistema hau eskuz egiten da eta oso zaila da zenbat denbora aurreratu zen jakitea, beste gidari batzu ere aurreratu ziren eta ez genituen ho-

rregatik zigortu". Angel Bideluzerengana ere jo genuen eta berak zera esan zigun "beharbada lehenago irten nintzen, baina oso zaila da jakitea, guztia eskuz egiten delako, dena den aurten bi karrera irabazi ditut eta Euskadiko txapelketa irabazteko aukera baneukan".

Guzti hau ikusi ondoren argi dagoena da proba hauen egitura aldatu egin behar dela halakorik berri ez pasatzeko.


# Izagirre kanpora

Jesus Izagirre, denboraldi hasieratik Bergara K.E.ko talde nagusiaren entrenatzailea, kargutik kendu eta bere orde J. L. Beitia jartzea erabaki zuen joan den asteartean elkarteko Zuzendari Batzordeak. Alex Garitano presidentek esan digunez emaitza txarrekin bultzatu dute Izagirreren kanporaketa. Bergarak 9 partiduko jokatu ditu orain arte: 3 irabazi, bat berdindu eta bost galdu egin ditu, eta 15. postuan sailkatuta aurkitzen da 7 punturekin. Denboraldi hasieran ateratako argazkian, presidentea eta Izagirre ikus ditzakezue. Beste garai batzuk ziren...



**IZADI**  
PILI GISASOLA

Osasun eta Dietetikan  
espezializatutako zentrua  
Zurradero 2, behea. Tfnoa: 76 58 83



**JAUIA KIROLAK**  
Irizar 2, Tfnoa: 76 14 95

**YAZKI**

UME GAZTE

**Neska eta Mutil**

Irizar 3 Ibargaral 8  
Tfnoa: 76 16 54 Tfnoa: 76 54 73



### *San Anton eta San Blas aldeko neska gazteak*

**S**an Blas eta San Anton aldeko gaztetako lagunak ageri dira 50eko hamarkadan ateratako argazki honetan.

Ondorengo hauek dira bertan agertzen direnak, ezkerretik eskumara:

**Aurreko ilaran:** Barrenako Mari Tere eta Margari Gisasola.

**Erdiko ilaran:** Juanita Egiguren, Maria Arruti, Juanita Ibabe, Maritxu Irastorza, Maria Luisa Gisasola eta Nati Gabilondo.

**Atzeko ilaran:** Teresa Gabilondo, Miren Iñarra, Elena Egiguren, Agripina Ibabe, Sabina Maiztegi, Rosario Iñarra eta Maria Luisa Agirre.

Aipatzekoa da Rosario Iñarrak 32 urte daramala Estatu Batuetan, Idahon, Elias Lete bergararrarekin ezkondua eta zenbait astetan gure artean izango dela.

Gure ongietorrikeri beroena euri eta egun eder batzuk pasa ditzatela bertan.

**Estepan Plazaola**

**Argazkia: S. Maiztegi**

Zure  
konfidantzako  
denda



Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

**ETXEBIZITZA**

Lokal bat alokairuan Irizar 2an.  
☎ 76 13 32 / 76 25 97.

Antzuolan pisua salgai, Ibarra 3, 6.C.an.  
☎ 76 62 49.

Bergaran herriaren erdialdean ileapaldegia alokatzen da. ☎ 76 16 17.

HarrizurIn garajea salgai.  
☎ 74 30 55/ 74 43 19

Pisua salgai Bidekurutzetan. (5.000.000).  
☎ 76 09 36.

Artekalen pisua salgai  
☎ 76 55 63. Gauzez.

Garajea salgai Espalorian. ☎ 76 01 95.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 44 65.

Pisu amueblatua alokatzen da Bergara erdian.  
☎ 12 12 71.

Espalolan garajea salgai  
☎ 76 23 27.

Deustun pisua osatzeko neska edo mutil euskaldun bat behar da.  
☎ 76 39 14.

Pisua salgai Martokuan. 80 metro karratu.  
☎ 76 14 13 (gauzez)

Antzuolan etxebizitza salgai Errekalden.  
☎ 76 60 40.

Pisua hartuko nuke alokairuan. ☎ 76 03 31.

**SALDU-EROSI**

Koker arrazako txakur bat salgai (marroia).  
☎ 76 56 06.

Citroen AX Image SS-AG matrikuladuna salgai.  
☎ 76 35 50 (gauzez) edota 79 82 10 (egunez).

SUZUKI DR BIG motorra salgai.  
☎ 76 50 67. (Ander).

Oinarrizko Heziketa Orokorra, U.B.I., B.B.B. eta Lanbide Heziketako klase partikularrak ere ematen ditut.  
☎ 76 44 34 (Amaia)

VESPA 200 bat salgai. Prezio onean.  
☎ 76 55 80.

3 atedun Opel Corsa 1.300 GTa salgai (SS-X).  
☎ 76 05 92 (gauzez).

Collle arrazako lau txakurkuma salgai. Prezio interesgarria. ☎ 15 04 41.

Ingeles kurtso bat kasetetan erosiko nuke.  
☎ 76 54 26.

OPEL CORSA SS-S gorria salgai. Prezio onean.  
☎ 76 55 80.

Petrolozko estufa salgai. ☎ 76 50 05.

3 pastilladun eta atzeko torreta erregulagarria duen kitarra berria salgai.  
☎ 76 61 99 (Oskar).

Kitarra akustikoa salgai (15.000). ☎ 76 11 89.

OHOk klase partikularrak: ☎ 76 31 93.

Peugeot 205 XL bat salgai. 6 urte SS-W.  
☎ (945) 27 92 73 (arratsaldez) / 76 05 23 (gauzez).

Nintendo berri-berri bat, 3 mando eta joku batekin, salgai. ☎ 76 56 97.

**LANA**

Neska behar da etxeko lanak egiteko. ☎ 76 31 58.

Neska batek etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke.  
☎ 76 45 53.

Emakumezko batek haurrak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke.  
☎ 76 36 06 (Marisol).

Fisika eta matematikako klaseak (U.B.I. eta B.B.B.) emango nituzke.  
☎ 76 31 76.

Etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke neska batek ☎ 76 06 98 (Amaia).

Neska batek etxeko lanak egin edota umeak zainduko lituzke.  
☎ 76 57 38.

Neska batek etxeko lanak egin edota umeak zainduko lituzke.  
☎ 76 60 65.

**Hildakoak**

*Vicente Galdos Zubizarreta*  
azaroak 6, 95 urte  
*Marcelino Elorza Arana*  
azaroak 9, 45 urte

**Jaiotakoak**

*Mireia Egaña Ugarte*  
azaroak 2  
*Ana Inclán Boizas*  
azaroak 8  
*Marina Centeno Vila*  
azaroak 8

**AUTOPULLMANS ARABA**  
**Autobusak**

**Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara**

ANGIOZAR ☎ 76 55 70

**AGOITZ**  
**Tapizdenda**


San Lorentzo 25, Tfinoa: 76 11 58  
BERGARA

# HALTZARI

**FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA**

Harane Erreka 4  
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA  
(Gipuzkoa)



SUKALDERAKO ALTZARIAK



**6** URTEKO  
GARANTIA



# ALDASORO

## ZAPATADENDAK

**BERGARA**

• **OÑATI**

• **LEGAZPI**

Zapata eta boltsen kolezioa berriztu dugu.

**NOBUCK, MOUTON eta DOBLE FAZ** (emakumezko zein gizonezkoentzako) marketako oinetakorik dotoreenak, diseinurik berrienak dituztenak.

Benetako **CASTELLANOS**ak ditugu.

**Dr. MARTENS** bota autentikoak jasotzen ditugu berriz.